



LIBURUA

Eskandalua



LANDA ALDEKO NESKAK

EDNA O'BRIEN (ITZ.: GEMA LOPEZ LAS HERAS)

EREIN ETA IGELA, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Landa aldeko neskek 1960an idatzi zuen O'Brienek, 30 urte zituenean. Liburu honekin ireki zuen autoreak bere ibilbide literario luzea –30 liburu inguru idatzi zituen–, askoren lehen izan zen Gema Lopez Las Herasek euskarara lehen aldiz ekarri duen hau. Ondo ekarri ere.

Protagonistak beraien artean oso desberdinak diren bi neska dira. Caithleen baserritarra da eta etxeko giroa aita alkoholiko eta biolento batek inposatzen du. Ziurrenik horregatik adierazten du hasieratik bere aske izateko nahia –25.orria: "Kanpora atera nintzen liliak batzera. Harmailetan gelditu nintzen zelaietara begira, eta, betiko moduan, askatasun eta gozameneko ufada bat sentitu nuen..."–. Baba albaitariaren alaba da eta maiz mespretxuz

hitz egiten dio lagunari, harro jokatzeko du berarekin. Hala ere, lagunak dira eta liburuan elkarrekin egingo duten bidaia kontatuko zaigu. Komentu batean barneko ikasle gisa sartzen dituzte eta bertatik ateratzeko trikimailuak asmatu beharrean daude.

Espazioek ere berebiziko garrantzia dute liburuan. Hasierako herria txikia da. Denek ezagutzen dute elkar eta moral kolektibo oso zehatza dago ezarrira. Txutxu-mutxuek, esamesek eta aurreiritziek pisu handia dute herrian eta pertsonaien nortasunean. Landa eremua espazio itogarria da bi emakume hauentzat. Komentua irlandar jendartearen zurruntasun erlijiosoaren isla da eta beste behin patriarkatuak emakumeentzat duen rola erakusle bihurtzen da espazioa. Hiria, Dublin, askatasunaren

sinbolo da, ordea. Aukera berrien espazioa. Gustura irakurri dut hirira alde egiteko hautua egiten duten emakumeen istorio hau, beraien kontzientziak eta argitasunak hasieratik harrapatu bainau.

Landa aldeko neskek eleberri gisa idatzi eta argitaratu zen garai hartan, baina gaur egun badakigu kontakizunak autorearen bizitzako pasarteak dauzkala. Trilogia beste bi liburuk osatzen dute: *The lonely girl* eta *Girls in their married bliss*. Garaiko kritikari ez zitzaion proposamena batere gustatu; izan ere eliza katolikoak Irlandan zuen boterea eta emakumeen gaineko kontrol izugarria salatzen du. Herriko apaizak hainbat ale erre zituen plazan eta zentsuratu egin zuten O'Brienek eleberria. Eskandalua sortu zuen... Eta guri gustatu. ●